

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

**HEZKUNTZA**

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntza Departamentuak “Ikusitakoan-Cuéntalo” kanpaina aurkeztu du ikasleak eskola-indarkeriaz sentsibilizatzeko

*Sare sozialetan, online komunikabideetan eta autobusetan zabalduko da, eta lehendabiziko aldiz, lekukoak kasu horien berri ematera animatzea xede duen kanpaina hau zinemara eramatearen aldeko apustua egin du Departamentuak*

Astelehena, 2018.eko abenduak 10

### Hezkuntza

Departamentuak “Ikusitakoan-Cuéntalo” deritzon kanpaina aurkeztu du gaur goizean, ikasleak eskola-indarkeriaz sentsibilizatzeko asmoz. Ekimen honen bitartez, horrelako indarkeriaren lekukoak diren pertsonak egoera horien berri ematera animatu nahi ditu. Hortaz, helburua egoera horiei ezikusiarena ez egiteak duen



Roberto Pérez, María Solana eta Aitor Lacasta "Ikusitakoan-Cuéntalo" kanpainaren aurkezpenean.

garrantzia nabarmentzea da, halakoak pairatzen dituztenei laguntzeaz gain. Kanpaina sare sozialetan, online komunikabideetan eta autobusetan zabalduko da, eta lehendabiziko aldiz, Departamentuak zinemara eramatearen alde apustu egin du.

[Hezkuntza Departamentuak](#) adierazi duenez, eskola-indarkeriazko egoera batek hiru osagai ditu: erasotzailea, biktima eta lekukoak. Azken faktore honi eragin nahi izan dio Departamentuak “Ikusitakoan-Cuéntalo” kanpainarekin, izan ere, lekukoaren laguntza ere garrantzi handikoa da eskola-indarkeriari aurre egiteko. “Ez egin ezikusiarena, konta iezaiguzu”.

María Solana Hezkuntza kontseilariak ohartarazi duenez, indarkeriaren lekukoak diren ikasleengana zuzenduz, “egoera gogorren aurrean mutu geldituz gero, nolabait deshumanizatzen direla iradoki nahi izan diegu. Jarrera horrekin, besteok ezin dugu jakin indarkeria horren berri eta, ondorioz, ezin dugu gainditu eta ezin diegu lagundu hurrengo biktimak izan ez daitezen”.

Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Pérez Elorzak alde aurreko prebentzioa azpimarratu du, ikasgeletako indarkeriari buruzko datu kuantitatiboen bitartez. Pérez Elorzaren esanetan, “indarrean dagoen legeriaren arabera, ikastetxeek bizikidetzeta-plana landu behar dute balizko eraso kasuak prebenitzeko eta horietan esku hartzeko. Esku hartzeko

protokolo bat ere badago, eta hori aplikatzeko, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren nahiz Bizikidetz Aholkularitzaren laguntza dute”. Hori guztia Departamentuak 2016an esku-hartzea ezagutzera emateko eta gai honi buruz sentsibilizatzeko abiarazi zuen Laguntza Programan jasota dago, izan ere, Zuzendari Nagusiak ziurtatu duenez, “Hezkuntza Departamentutik prebentzioa sustatu da beti, fenomeno hori aurre egiteko modurik egokiena delakoan, eta prebentzio horrek komunikazio arloko nahiz gatazkak kudeatzeko gaitasunen eta gaitasun emozionalen garapena, agintaritz demokratikoko estrategiak eta bizikidetzarauei atxikitako errespetuaren eta enpatiaren balioei buruzko ituna ditu oinarri”.

Bizikidetz arloan ezarritako indarkeria motei buruzko oinarriko sailkapenean, jazapena kasuak, irakasleen aurkako erasoak, cyberbullyinga, disrupzioa, diziplina espedientea, borrokak eta genero-indarkeria bereizi dira.

Horren harira, Ebaluazio, Kalitate, Prestakuntza, Berdintasun eta Bizikidetz Zerbitzuko zuzendari Aitor Lakasta Zuberok argi utzi du bizikidetz “funtsezko lana dela ikastetxe guztietan. Bizikidetz-plana izan behar dute eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuan islatu behar dute. Gai hau oinarri-oinarrizkoa da”.

Haren zuzendaritzapeko zerbitzutik eskaintzen duten aholkularitzari dagokionez, Lakastak nabarmendu du normalean “harreman arina eta erraza izan ohi dutela ikastetxe guztiekin eta informazio hurbila eta erabilgarria eskaini ohi dietela”. Informazio horretarako sarbidea erraza eta intuitiboa izan dadin lan egiten ari dira: “webgunea berritzen ari gara, familiei, ikasleei nahiz irakasleei dokumentazio lagungarriaren bilaketa errazteko xedez”.

Departamentuaren hiru arduradunak pozik azaldu dira horrelako kasuak ez isiltzera gonbidatzen duen kanpaina honekin. Hezkuntza kontseilari María Solana arduratu da, neguko oporretan zinema-aretoetan ikusgai izanen den iragarkia aurkezteaz, kanpainaren bitartez iradoki nahi dena berriz ere nabarmenduz: “Ez da ekiteko gonbidapena; isilik ez gelditzeko eta gertatutakoa betiko ez estaltzeko deia besterik ez da. Horrela, nahi dutenean eta nahiago duten moduan, gertatutakoa ezagutzera eman dezaten. Ikusi dutena, entzun dutena”.

## Galería de fotos



Kanpainaren irudietariko bat.